

## Laugarren mailako ikasleek ostiralean, ekainaren 10ean, jasoko dituzte gradu amaierako orlak Arrasateko Amaia antzokian

2016/06/06

Ekainaren 10ean, ostiralarekin, Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko laugarren mailako ikasleek graduetako bukaera ekitaldia egingo dute Arrasaten. Ekitaldia Amaia antzokian egingo da, 18:00etan hasiko da.

Aurten, **219 ikaslek jasoko dute ikasketa bukaerako orla**. Horietatik 102 izango dira Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleak, 72 Haur Hezkuntzakoak eta 40 Ikus-entzunezko Komunikazio graduakoak. Gainera, aurten lehenengo aldiz, gradua *online* ikasi duten ikasleek ere jasoko dute orla, hain zuzen ere, Lehen Hezkuntza graduako 5 ikaslek.

Arrasaten egingo den ekitaldian **650 lagun** baino gehiago elkartuko dira. Izan ere, orla banaketa ekitaldira gonbidatuak izan dira aurten gradua bukatuko dituzten ikasleak, irakasleak eta ikasle horien senide eta lagunak.

Ekitaldi ofiziala bukatuko ondoren, luntxa egingo da Amaia antzoki ondoko Uharkape pilotalekuan.

### EGITARAUA

Hasiera: 18:00

- **Begoña Pedrosa** Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko dekanoren agurra.
- **Nerea Alzola** Humanitate eta Hezkuntza Zientzien Fakultateko irakaslearen hitzaldia: "Zutaz akorkatu!"
- **Orla banaketa**.
- **Bixente Atxa** MONDRAGON UNIBERTSITATEko errektorearen hitzak.
- **Eneko Balerdi eta Beñat Rallaren** dantza ikuskizuna.
- **Luntxa** Uarkape pilotalekuan.



lazko orla banaketa ekitaldian bildutakoak.